

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

Lan poltsa bat sortzea Lapuebla de Labarcako Udaleko zerbitzu askotarako behargin plazan aldi baterako ordezkapenak egiteko eta sor daitezkeen beharrian puntualak betetzeko

Lapuebla de Labarcako Udaleko alkateak, 2025eko apirilaren 25eko ebazpen bidez, honako erabaki hau hartu zuen:

Lehenengoa. Lapuebla de Labarcako Udalean zerbitzu askotarako behargin lan poltsa sortzeko hautaketa prozedurarako deialdia egitea.

Bigarrena. Onespina ematea Lapuebla de Labarcako Udaleko zerbitzu askotarako behargin plazan aldi baterako ordezkapenak egiteko eta sor daitezkeen beharrian puntualak betetzeko lan poltsa sortzeko deialdia arautu behar duten oinarriei.

Hirugarrena. Oinarriak ALHAOn eta udalerriko iragarki taulan argitaratzeko agintzea, interesa dutenek eskaerak arazuko epean aurkeztu ahal izan ditzaten iragarkia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

Laugarrena. Dekretu hau udalbatzari jakinaraztea, egiten den lehenengo osoko bilkuran.

Lapuebla de Labarcako Udaleko zerbitzu askotarako behargin plazan aldi baterako ordezkapenak egiteko eta sor daitezkeen beharrian puntualak betetzeko lan poltsa sortzeko deialdia arautu behar duten oinarriak

Lehenengoa. Deialdiaren xedea

1. Deialdi honen xedea da lan poltsa bat sortzea Lapuebla de Labarcako Udaleko zerbitzu askotarako behargin plazan (lan kontratukoa) aldi baterako ordezkapenak egiteko eta sor daitezkeen beharrian puntualak betetzeko.

2. Deialdiko zerbitzu langilearen lanpostuak 2. hizkuntza eskakizuna du esleitura, derrigortasun data igaro gabe, eta, beraz, euskararen ezagutza merezimendutzat hartuko da, bat etorritik Euskal Sektore Publikoan Euskararen Erabilera Normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuan ezarritakoarekin.

Bigarrena. Lanpostuaren ezaugarriak

1. Lanpostuen eginkizunak, egitekoak, rolak eta bestelako ezaugarriak kasuan kasuko eranskinetan zehaztuko dira, izangaien informaziorako.

2. Lanaldia Lapuebla de Labarcako Udalak urtero zehazten duena izango da. Hala ere, hautatuak lanpostuen izaera eta beharrian bereziei erantzungo die.

Hirugarrena. Hautagaien betebeharrak

Onartuak izateko, eta hautaketa prozesuan parte hartzeko, honako baldintza hauek bete beharko dituzte hautagaiek:

1. Europar Batasuneko kide den estaturen bateko nazionalitatea edukitzea edo, bestela, Europar Batasunak egindako eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen ondorioz, langileen zirkulazio librea aplikagarri zaion estatu bateko herritarra izatea (Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuen 5/2015 Legearen testu bateginaren 57. artikuluan xedatutakoaren arabera). Edo, bestela, EBko estatu kideetako nazionalitatea duen baten ezkontidea izatea – betiere legez bananduta ez badaude – edo haren ondorengoa izatea –21 urtetik beherakoak badira edo mendekoak badira –.

2. Gutxienez hamasei urte beteta eta gehienez ere nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina izatea.

3. Eskola ziurtagiria edo baliokidea edukitzea, edo hura lortzeko eskubideak ordaindu izana, eta B gidabaimena edukitzea.

Atzerriko tituluak badira, homologazioa egiaztatzen duen ziurtagiria beharko da.

4. Diziplina espediente bidez inongo herri administrazioetik baztertua ez izana, eta eginkizun publikoak betetzeko ezgaiturik ez egotea.

5. Eskuratu nahi den lanpostuari dagozkion zereginak normaltasunez betetzeko behar diren gaitasun funtzionalak edukitzea, eta gauzatu behar diren eginkizunak eta zerbitzuak normaltasunez betetzea eragozten duen edo horrekin bateraezina den gaixotasunik edo muga fisiko edo psikikorik ez izatea.

6. Ezintasuneko edo bateraezintasuneko legezko auziren batean sartuta ez egotea.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen bete beharko dira betekizun guztiak, eta oinarrietan ezarritako unean edo horretarako eskatzen den beste edozein unetan egiaztatu beharko dira.

Laugarrena. Eskaerak

Hautaketa proba hauetan parte hartzeko eskaerak oinarri hauen II. eranskinean ezarritako ereduaren arabera izan behar dira.

Eskaerak izapidetzean, izangaiek honako hauek eduki beharko dituzte kontuan:

Eskaerak, behar bezala beteta, Lapuebla de Labarcako Udaleko alkate-lehendakariari bidaliko zaizkio, lanpostua eskuratzeko baldintzak egiaztatzen dituen dokumentazioaren kopiarekin batera.

Era berean, eskatzaile guztiek honako hauek aurkeztu beharko dituzte eskaera aurkezteko garaian:

- Eskaeran alegatutako merezimenduak egiaztatzen dituzten agirien fotokopia, balioetsiak izan daitezen.

Eskaeretan, izangaiek adierazi beharko dute deialdiaren hirugarren oinarrian eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela.

Eskaerak aurkezteko epea: hamar (10) egun baliodun, dagokion deialdiaren iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Eskaerak udal honen erregistro orokorrean aurkeztu daitezke, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako moduan. Posta bulegoetan aurkeztutako eskaerak, bat etorri Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan jasotakoarekin, gutun azal irekian aurkeztu behar dira, postetxeko funtzionarioak data eta zigilua jar diezazkien, eskaerak aurkezteko epearen barruan ziurtatu baino lehen. Hala eginez gero soilik ulertuko da eskaerak posta bulegoan entregatu ziren datan sartu direla udalaren erregistro orokorrean. Eskaera da zigilaturik egon behar dena.

Aurkezpen telematikoa: Interesdunek erregistro telematikoa aurkeztu ahalko dute beren eskaera, sinadura elektronikoko ziurtagiri elektronikoko kualifikatuetan oinarritutako sistemak erabiliz:

<https://udalenegoitza.araba.eus/lapuebladelabarca/web/inicioWebc.do?opcion=noreg&entidad=LAPUEBLA>.

Datu pertsonalak tratatzeko baimen automatikoa: Datuen babesari buruzko informazioa:

Tratamenduaren arduraduna eta datuen babeserako ordezkariarekin harremanetan jartzea.
Lapuebla de Labarcako Udala

Helbidea: Plano plaza, 9; 01306 Lapuebla de Labarca, Araba. Telefonoa: 945 607051. Helbide elektronikoa: alapuebla@ayto.araba.eus.

CIF: P0103500 F

Tratamenduaren helburuak eta gordetzeko epeak:

Udaleko langileak hautatzea.

Administrazio jarduerak irauten duen bitartean tratatuko dira datuak, eta tratamenduak ekar ditzakeen erantzukizun juridikoen arabera gordeko dira.

Tratamenduaren oinarri juridikoa.

5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enpleguaren Oinarritzako Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena.

11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena.

2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Enpleguaren Oinarritzako Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena.

Hartzaileak.

Datu pertsonalak eskumena duten beste administrazio publiko batzuei jakinarazi ahal izango zaizkie, hala nola HAEeri edo udalei, udaleko talde politikoei, langileen batzordeari eta enpresa batzordeari.

Eskubideez baliatzea.

Pertsona interesdunak eskubidea dauka bere datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzeko nahiz haien tratamendua mugatu edo aurkaratzeko, bai eta informazioa handiagotzeko ere, toki erakundearen helbidera edo helbide elektronikora idatziz.

Eskaerak aurkezteko epea amaitutakoan, eskabidean adierazitako datuak lotesleak izango dira eskatzailearentzat.

Eskaeran agertzen den helbidea izango da jakinarazpenetarako balioko duen bakarra. Antzeman daitezkeen egitatezko okerrak edozein unetan zuzendu ahal izango dira, ofizioz edo interesdunak eskatuta.

Bosgarrena. Izangaiak onartzea

1. Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, alkateak deialdian onartu diren eskaeren eta bazter utzi diren pertsonen behin-behineko zerrenda onetsiko du, bazter uzteko arrazoiekin batera, eta argitara emango dira Lapuebla de Labarcako Udalaren iragarki taulan eta egoitza elektronikoan, eta 5 egun balioduneko epea egongo da alegazioak egiteko.

2. Erreklamaziorik aurkeztzen bada, alkatetzaren ebazpen bidez baietsi edo ezetsiko dira. Ebazpen horrek behin betiko bihurtuko du behin-behineko zerrenda, eta Lapuebla de Labarcako Udalaren iragarki taulan eta egoitza elektronikoan argitaratuko da.

3. Erreklamaziorik aurkeztu ezean, behin-behineko zerrendak behin betiko bihurtuko dira zuzenean.

4. Onartutako eskaeren behin-behineko zerrenda argitaratzearekin batera, epaimahai kalifikatzaileko kide titularren eta ordezkoen zerrenda ere argitaratuko da.

Seigarrena. Epaimahai kalifikatzailea

Epaimahai kalifikatzailea kide anitzekoa izango da, eta karrerako funtzionarioek edo lan kontratudun langile finkoek osatuko dute. Epaimahaia osatzean, kideen inpartzialtasun eta profesionaltasun printzipioak bete beharko dira, baita emakumearen eta gizonaren arteko parekotasuna ere.

Epaimahaiak lehendakari bat, bokal idazkari bat eta bokal bat izango ditu, eta haiek hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea izango dute. Epaimahaia, gainera, ordezkoei osatuko da. Horiek titularrekin batera izendatuko beharko dira. Betiere, indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera eraturiko da.

Epaimahaiakideen eta ordezkoen zehaztapena onartutakoen behin betiko zerrendarekin batera argitaratuko da.

Epaimahaia eratzeke eta aritzeko, ezinbestekoa izango da lehendakaria eta idazkaria bertaratzea (edo haien ordezkoiak, hala badagokio).

Epaimahaiko kideak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan adierazten diren abstentzio eta errekusazio kasuen mende daude.

Epaimahaiak, bertaratutako kideen botoen gehiengoz ebatziko ditu oinarri hauetan jasotako arauak aplikatzeko sortzen diren zalantza eta proposamen guztiak, eta probak egiten diren bitartean sor daitezkeen arazoak ebazteko ahalmena izango du, bai eta probetan ordena egokia bermatzeko beharrezko neurriak hartzeko ere, oinarrietan jasotzen ez den guztian. Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen Legean ezarritako kasuetan eta moduan aurkaratu ahal izango dira haren erabakiak.

Zazpigarrena. Hautaketa prozesuaren hasiera eta garapena

Izangaiek lan poltsetan izango duten hurrenkera zehazteko sistema merezimenduen lehiaketa izango da. Honako baremo honen arabera baloratuko dira merezimenduak:

A) Lan esperientzia:

A1) Gehienez ere 21 puntu, eta baremo honi jarraituko zaio:

Lapuebla de Labarcako Udalean behargin lanetan emandako zerbitzuak: 3 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko; lanaldiaren erdia baino gehiagoko zerbitzuak izan beharko dira.

A2) Gehienez ere 21 puntu, baremo honi jarraituta:

Administrazio publikoan edo sektore pribatuan egindako zerbitzuak, zerbitzu askotarako behargin lanpostuetan (edo udal lanpostuaren eginkizun baliokideak dituzten antzeko izena dutenetan): 1,5 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko; lanaldiaren erdia baino gehiagoko zerbitzuak izan beharko dira.

A3) Gehienez ere 21 puntu, baremo honen arabera:

Administrazio publikoan (Lapuebla de Labarcako Udala izan ezik) edo sektore pribatuan (udal lanpostuaren eginkizunekin lotutako sektoreetan lehen mailako ofizial lanetan) emandako zerbitzuak: 0,5 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko; lanaldiaren erdia baino gehiagoko zerbitzuak izan beharko dira.

Egiaztatzeko modua: administrazio publikoetan emandako zerbitzuak egiaztatzeko, ziurtagiria aurkeztu beharko da, zerbitzuaren iraupena eta betetako lanpostua zehaztuta edo bete beharreko eginkizunei buruzko txostena, salbu eta eginkizun horiek zehazten dituen lan kontratua aurkezten bada (Lapuebla de Labarcako Udalean emandako zerbitzuak udalak berak egiaztatuko ditu ofizioz, baldin eskaeran adierazi badira). Sektore pribatuan emandako zerbitzuak egiaztatzeko, kasuan kasuko zerbitzuak jaso dituen enpresaren ziurtagiria edo lan kontratua aurkeztuko da, eta betetako lanpostuaren eginkizunak xehetasunez jaso beharko dira bi kasuetan,

salbu eta eginkizun horiek zehazten dituen lan kontratua aurkezten bada. Gizarte Segurantzak egindako lan bizitzaren agiria ere aurkeztu beharko da. Hautagaiek egiaztatu beharko dute alegatutako lan esperientzia deitutako lanpostuaren kategorian bertan edo antzekoan eman dela eta eginkizun berberak edo antzekoak egin dituela. Horrez gainera, esperientziaren iraupena egiaztatuko beharko dute.

B) Prestakuntza: Gehienez, 26 puntu.

B1) Indarreko hitzarmenean goragoko talde batera (DBHko graduatua, eskola graduatua, LH1) sartzeko eskatzen den titulua izateagatik: 20 puntu.

B2) 250 ordutik gorako prestakuntza ikastaroak edo lanbide hobekuntzako ikastaroak gaindituta izateagatik 2 puntu emango dira, eta gehienez 6, betiere bete nahi den plaza edo lanpostuarekin lotura badute. Soilik baloratuko dira erakundeek, zentro publikoek edo gainerako prestakuntza zentro ofizialek edo etengabeko prestakuntzarako planak egiten lankidetzan aritzen diren erakunde eta instituzioek antolatu edo homologatzen dituztenak.

Merezimenduak egiaztatzeko, kasuan kasuko agiri profesionala edo ikastaroaren titulua edo ikastarora joan eta gainditu izanaren ziurtagiria aurkeztu beharko da, jatorrizko agiria edo kopia erkatua edo konpultsatua, eta partekatutako irakasgaiak eta eskola ordu kopurua adierazi beharko dira.

C) Euskara Gehienez, 11 puntu.

a) 1. hizkuntza eskakizuna: 5 puntu.

b) 2. hizkuntza eskakizuna: 8 puntu.

c) 3. edo 4. hizkuntza eskakizuna: 11 puntu.

Egiaztatzea: oinarri hauetan adierazitako euskara probak gaindituz; dagokion hizkuntza eskakizuna duela egiaztatzen duen IVAPen ziurtagiriaren bidez (administrazio publikoaren zerbitzura langile gisa lan egin ez duten hautagaiek beste hautaketa prozesu batzuetan egiaztatutako 1. hizkuntza eskakizunaren ziurtagiriekin indarrean egon beharko dute eskaera epea amaitzen den egunean); edo beste edozein agiri edo titulu baliokideren bidez (apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 41. artikulua, azaroaren 9ko 297/2010 Dekretua eta apirilaren 3ko 4/2012 Dekretua).

Hizkuntza eskakizunetako bat bakarrik balioetsiko da, puntuaziorik handiena duena alegia, bat baino gehiago egiaztatuz gero.

Zortzigarrena. Kalifikazioa, puntuazioak argitaratzea eta lan poltsak osatzea

Hautaketa prozesua osatzen duten merezimenduen kalifikazioa amaitu ondoren, epaimahaiak onartutako eta baztertutako izangaiei behin-behineko zerrenda argitaratuko du. Ebazpen hori udalaren iragarki taulan eta web orrian argitaratu eta erakutsiko da. Zerrenda horietan baztertu gisa ageri diren izangaiek bost eguneko epea izango dute bazterketaren aurkako erreklamazioak jarri eta hura eragiten duten akats edo agiriak zuzentzeko. Erreklamazio epe hori igaro eta aurkeztutako erreklamazioak ebatzi ondoren, hautagai bakoitzaren behin betiko kalifikazioa eta puntuazio ordena argitaratuko dira, prozesuan (lehiaketa) lortutako puntuazioen baturak zehaztutako behearazko hurrenkeran, eta lan poltsa eratzeke proposamena egingo da. Proposamen hori alkatetzari igorriko zaio.

Bederatzigarrena. Poltsen funtzionamendua

1. Lan poltsaren hurrenkerari jarraituko zaio lan poltsako kideei kontratazio eskaintza bertetzeko deia egiteko, eta, horrela, kontratua edo izendapena eskainiko zaio kontratatua izatea dagokion lan poltsako pertsonari Udal ofizioetako langileen artean ez dago emakumeen ordezkaritza txikiegarik.

2. Lan kontratu bat eskaini zaien eta kontratuari uko egiten dioten pertsonak, jarraian ezarritakoaren arabera bidezko arrazoirik alegatu eta justifikatu gabe, lan poltsan azken postuan geratuko dira lanpostu hutsak betetzeko, eta ez zaie kontrataziorik eskainiko harik eta kide guztiek gutxieneko kontratazio aldia amaitu eta zerrenda berriz hasi arte:

a) Izangaia lanean dagoenean, eta hori justifikatzeko kontratua aurkeztea.

b) Izangaia geroago lan eskaintza bat izaten duenean, enplegu hobekuntza dakarrena (lanaldi luzeagoa, soldata handiagoa edo kontratuaren iraupen luzeagoa, besteak beste).

c) Izangaia indarrean dagoen akordio arautzailean eta hitzarmen kolektiboan jasotako lizenziaren bat izateko egoeraren batean dagoenean.

d) Izangaia bekaduna denean, erakunde ofizial batek emandako beka duelako, edo ikasketa ofizialak edo euskalduntzeko ikastaro trinkoak edo barnetegikoak egiten ari denean, eta ez zaio izendapen berririk eskainiko beka edo ikasketa ofiziala edo ikasturtea amaitu dela jakinarazpen fede-emailaz egin arte.

e) Askatasun gabetzeen kasuetan, izangaia bere uko egitea onartua izan dadila eskatu ahal izango du epai irmoa ematen ez den bitartean, eta askatasuna berreskuratu ondoren zerrendetan egongo da, betiere askatasuna berreskuratzen duenetik hilabeteko epean jakinarazten badu.

f) Izangaia berak aldi baterako lan poltsatik atera dezatela eskatzen duenean, betiere aldi hori ez bada ekainaren 1etik irailaren 30era bitartekoa.

Idatziz jakinarazi beharko du, bazter uzteko eskatu duen aldia baino sei hilabete lehenago gutxienez.

g) Udalaren lan eskaintza jaso aurretik bidaia bat kontratatuta duenean. Egoera hori eta bidaiaren ordainketa era fede-emailaz justifikatu beharko da.

i) Aurretik aipatutakoen antzeko ezaugarriak dituzten baina deskribatuta ez dauden beste egoera batzuk gertatzen direnean.

3. Kontratazio edo izendapen eskaintza telefonoz egingo zaio poltsaren hurrenkerari jarraiki kontratatuta ez dagoen lehen hautagaiari, eta erantzunik jaso ezean edo hori ezezkoa izanez gero, hurrengoari deituko zaio, eskaintza onartzen duen pertsona aurkitu arte. Telefono elkarriketaren emaitzaren berri emango da espedientean, deia zein egunetan eta ordutan egin zen eta emaitza adierazita. Edonola ere, momentuan bertan erantzun nahi ez badu, erantzuteko hogeita lau ordu dituela ohartaraziko zaio. Behin eskaintza egin eta hautagaiak onartu ondoren, irmotzat joko da, gerora beste hautagai batek lan egiteko moduan dagoela eta eskaintza berari dagokiola adierazi arren.

4. Deia telefonoz egingo da, telefono mugikorraren edo telefono finkoaren bidez, eta gutxienez hiru dei egingo dira ezarritako ordutegian, zazpi eta erdietatik hiru eta erdietara bitartean. Elkarriketaren emaitza idatziz jasoko da, eta deiaren ordua eta data adieraziko dira.

Lan poltsetako kideen helbide elektronikoa edukiz gero, bitarteko horrek telefono bidezkoa ordezkatzeko du, hala eskatu bada. Jaso izanaren agiriarekin bidaliko da, eta epe bat emango da erantzuteko, bidalketa egiten denetik hurrengo eguneko hamabiak artekoa izan ohi dena, larrialdi kasuetan izan ezik.

5. Lan poltsan sartu ondoren, aurkitzeko edo lokalizatzeko datuak aldatzen dituzten pertsonak berehala eman beharko diote horren berri udalari, datuak eguneratu ditzan.

6. Kontratuen iraupena kontratazioa erabakitzen duen administrazio egintzan jasotakoa izango da, eta behar izatekotan luzapenetan; dena den, iraupen desberdineko kontratazio bat baino gehiago aldi berean eskainiz gero, sorta osoa eskainiko da, baina lehentasun hurrenkerari jarraiki, horrela lehentasuna duen izangaia komeni zaionaren arabera aukeratu ahal izango du.

7. Lan kontratuek hilabeteko probaldia izango dute beti (probaldiaren iraupena laburragoa izan ezean).

8. Kontratua amaitutakoan, udal langileak txosten bat egingo du, eta, bertan, langilea bost alderditan ebaluatuko du, alderdi bakoitzean 1 eta 5 puntu bitarteko puntuazioarekin: esleitutako zereginetarako aldez aurreko ezagutzak, ikasteko gaitasuna, diziiplina eta zuzentasuna gainerako langile eta bizilagunekiko tratuan, prestasuna lanak betetzean eta ardura lanak behar bezala egiteko. Batezbestekoa puntu 1 edo gutxiago bada, langilea lau postu beherago kokatuko da lan poltsan hurrengo deirako. 2 puntu edo gutxiagokoa bada, hiru postu beherago kokatuko da. Bi postu beherago, 3 edo gutxiagokoa bada, eta postu bat beherago, 4 edo gutxiagokoa bada. Batez bestekoa 4tik gorakoa bada, bere kokapenari eutsiko dio.

Hamargarrena. Gorabeherak

Deialdia, haren oinarriak eta hautaketa organo teknikoaren edo epaimahaiaren jardunetik eratorritako administrazio egintzak aurkaratu ahal izango dituzte interesdunek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritako moduan eta epeetan.

Lapuebla de Labarca, 2025eko apirilaren 25a

Alkatea

MARÍA TERESA CÓRDOBA FERNÁNDEZ

I. ERANSKINA

EGINKIZUNAK

Gaur egun erabakitako eginkizunen deskribapenean oinarrituz, lanpostuaren eginkizunak orain zehaztuko direnak dira, eta adierazten diren lantokietan gauzatuko dira. Hala eta guztiz ere, eginkizun horiek alda daitezke, udal zerbitzuak hobetzeko badira, edo zentro berriak irekitzen badira:

Lantokiak:

1. Udaletxea.
2. Mediku kontsultategia.
3. Gazteen zentroa.
4. Udal pilotalekua.
5. Udal igerilekuak.
6. Hilerria.
7. Udal lorategiak eta parkeak.
8. Udal kaleak eta bideak.

Lanpostuaren eginkizunak:

1.- Udal eraikin eta instalazioen mantentze-lanak: konponketak eta igeltserotza lanak, trenkadak, kofratze lanak, garaierako lanak, pintatze lanak, eta elektrizitate, iturgintza, zurgintza, soldatze edo sarrailagintza arloko oinarritzko egitekoak.

2.- Bide eta bideen mantentze-lanak: hormigoizko horma ataletako edo bide zoruetako konponketak bideetan, junturak zigilatzea, seinaleak jartzea, garbiketako makinak erabiltzea (kale garbigailua, hidrogarbigailua), arekak garbitzea, fatxadak eta hiri altzariak garbitzea, kartelak kentzea, pintadak ezabatzea.

3.- Lorategiek mantentze-lanak: landaketa, ongarritzea, ureztatzea, belarra moztea, inausketa eta mozketak egitea, makina espezifikoak erabiltzea, eta iturriak eta ureztatze sistemak programatzea eta haien mantentze lanak egitea.

4.- Ibilgailuak eta makinak gidatzea eta maneiatzea: orga jasotzailea, iraulki kamioia edo beso teleskopikoduna, plataforma jasotzailea eta abar, agindutako lanak egiteko edo zama garraiatu eta manipulatzeko. Ibilgailuen eta makinen oinarritzko mantentze-lanak eta garbiketa: koipeztatu, garbitu edo mailak egiaztatzea, erabiltzen duen lan materialaren gainera hartuz.

5.- Karpak, agertokiak, hesiak, aldamiok eta bestelako elementu eramangarri edo aldi baterakoak jarri eta kentzea. Askotariko lanak, kultura, kirol edo jaietako jarduerekin loturikoak.

6.- Materialak jaso, kargatu eta deskargatzea, eta materialok biltzeko lanak egitea.

7.- Aparteko egoeretan (elurteak, izozteak, denboraleak, uholdeak, suteak, zuhaitz erorketak...) beharrezko diren lanak egitea.

8.- Hilerriko lanak, ehorzketak prestatzea, garbiketak, etab.

9.- Deskribatutako eginkizunetaz gainera, bere gaitasun profesionala kontuan hartuz, eskatzen dizkieten beste eginkizun batzuk ere egitea, Lapuebla de Labarcako Udalak ezarritako helburuak betetze aldera.

II. ERANSKINA

ESKAERA EREDUA

Lapuebla de Labarcako Udalekozerbitzu askotarako behargina aldi baterako kontratatzeko lan poltsa handitzeko onartze eskaera.

Izena:

Lehen abizena:

Bigarren abizena:

Jaioteguna eta jaioterria:

Probintzia:

Adin nagusikoa, NANA:

Telefonoa:

Helbidea, kalea:

Helbidea, herria:

Helbidea, probintzia:

Posta kodea:

Helbide elektronikoa:

Agertu da, eta, dagokion moduan, honako hau dio:

Lapuebla de Labarcako zerbitzu askotarako behargina behargina aldi baterako kontratatzeko lan poltsa sortzeko deialdian onartua izateko eskatzen duela.

Dagozkion zereginak betetzeko gaitasun funtzionala duela.

Ez duela indarrean dauden lege xedapenetan ezartzen diren ezintasunetako bat ere.

Ez dutela diziiplina espediente bidez administrazio publikoen zerbitzutik bereizi, eta ez dagoela desgaituta funtzio publikoak betetzeko. Hirugarren oinarrian eskatutako baldintza eta betekizun guztiak betetzen dituela, eta NANaren fotokopia, eskola ziurtagiriaren edo baliokidearen egiaztagiria eta B motako gidabaimena aurkezten dituela.

Horrez gain, lehiaketa aldiari lotutako agiri hauek eransten dituela:

Lan esperientzia:

Prestakuntza:

Euskara:

Eskatzen dut: Hautaketa prozesuan onar nazatela.

.....(e) koren(a)

Sinadura

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALEKO (ARABA) ALKATE-LEHENDAKARIA.